

5. FITXA : ZEIN DIRA BERTZEEN EZAUGARRI ONAK ?

HELBURUAK :

- Autoestimua azkartu.
- Gure burua hobeki ezagutu.
- Pentsamendu positiboa sustatu.

KONPETENTZIAK :

- Elkarrizketa eta iritzi trukada sustatu ikasleen artean.
- Barne begirada bultzatu.

ANTOLAKETA :

AZALPENA :

Denek, den-denek, ditugu ezaugarri onak. Zein dira nire kideek dituztenak ? Ikaskideen zerrenda harturik, bakoitzari ezaugarri positibo bat bederen bilatuko diogu. Denek, maite ditugun kideek eta maite ez ditugunek, ezaugarri positiboak dituzte.

Ikasle guzietan, gainerateko ikasleen zerrenda eman (taula batean ezarririk), eta bakoitzari ezaugarri positibo bat bederen idatzi behar diotela azaldu. Haien laguntzeko, adjektibo positiboen zerrenda ematen ahal zaie : abila, aitzindaria, alaia, argia, asaldakaitza, atsegina, ausarta, azkarra, baketsua, bihotz onekoa, irriargia, ernea, hitzekoa, esker onekoa, eskuzabala, indartsua, irekia, isila, kirolzalea, kantaria, konfiantzazkoa, lagunkina, langilea, lasaia, lerdena, liraina, maitagarria, malgua, polita, positiboa, saiatua, segurra, sentibera, sutsua, trebea, umoretsua, zentzuduna, zintzoa...

IKASKIDEAREN IZENA	EZAUGARRI POSITIBOA
1. NI:	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
10.	
11.	
12.	
13.	
14.	
15.	
16.	
17.	
18.	
19.	
21.	

Zer egin adjektibo horiez ? Urtebetetze bakoitzean opari kutxa berezi bat prestatu eta urteak bete dituenari eman, barnean denek idatziriko ezaugarri positiboekz beterik. Horrela ikasle guzietan gutienez opari berdina izanen dute ; ezaugarri positiboekz beteriko opari kutxa.